

## Europako eskualde historiko-politiko nagusiak

(Eta eranskina: greko modernoaren nazioarteko erromanizazio-taula)

### Aurkezpena

Historiaren emaitza da Europak gaur egun duen estatukako banaketa. Historia horretan uxarrean hasita, luze gabe azaleratzen dira leku-izen asko, garai batean estatu edo erresuma izan zirenak edo garrantzi handia izan zutenak: eskualde historikoak (printzerria, dukerria, jaurerria...). Haietako batzuk desagerturik daude dagoeneko, hau da, gaur ez dute izaera administratibo edo politikorik; adibidez, *Prusia* edo *Milango Dukerria*. Beste batzuk, berriz, gaur egungo estatuen barnean era batera edo bestera aintzatetsitako lurraldeak dira (eskualde, land, kanto, probintzia...), hala nola *Lombardia*, *Holanda* edo *Renania*. Badira, haiekin batera, eskualde ez-historikoak ere, berriki sortuak, tokiko hiri nagusiaren izena dutenak, kasurako (*Hamburg* edo *Hamburgo*, adibidez, Alemaniako hiri baten izenez gainera, bada Alemaniako land baten izena ere. *Berna* Suitzako hiriburua da, baina bada *Berna* izeneko kantoia ere).

Eskualde-izen horietako asko erabilera-maiztasun handikoak dira: egunero agertzen da haietako bat baino gehiago komunikabideetan eta turismo-iragarkietan. Halaber agertzen dira eskualde-izen horiek Euskal Autonomia Erkidegoarekin eta Nafarroako Foru Erkidegoarekin batera euroeskualde direlakoan testuinguruan. Eta beste asko eta asko eskola-liburuetan ageri dira, Europako historiari eta arteari buruzko irakasgaietan.

Leku-izen horietariko asko ez dira berdin idazten hizkuntza guztietan. Erabiliaren erabiliaz, hizkuntzek etxekotu egin dute leku-izen arrotza, aldatu egin diote grafia; alegia, exonimo bihurtu dira. Hala, adibidez, alemanez *Preußen* edo *Preussen* idazten den antzinako estatua *Preussi* idazten da finlandieraz; *Pruisen*, nederlanderaz; *Prusia*, errumanieraz eta gaztelanieraz; *Prusse*, frantsesez; *Prūsija*, lituanieraz; *Prusija*, eslovenieraz; *Prusko*, txekieraz; *Prussia*, italieraz eta ingelesez; *Prússia* katalanez eta portugesez; *Prusy*, polonieraz...

Edo nederlanderaz *Vlaanderen* idazten den Belgikako eskualdea *Fiandre* da italieraz; *Flandern*, danieraz, alemanez eta suedieraz; *Flander*, finlandieraz; *Flandes*, gaztelaniaz eta katalanez; *Flandra* errumanieraz; *Flandre*, frantsesez; *Flanders*, ingelesez; *Flandres*, portugesez; *Flandria*, estonieraz, hungarieraz eta polonieraz; *Flandry*, txekieraz...

Grafia-ugaritasun horren aurrean, beharrezkoa da eskualde horien izenak euskaraz ere finkatzea. Hori gabe, ez da harritzekoa euskaldunok inguruko erdal grafia —dela gaztelaniaren eraginez Hego Euskal Herrian, dela frantsesaren eraginez Ipar Euskal Herrian— erabiltzeko joera izatea, edo, komunikabideetan, ingelesezko grafia hartzea, albiste askoren jatorrizko hizkuntza ingelesa baita gaur egun.

Kanpoko leku-izenak euskaraz idazteko irizpideak emateko orduan, tokian tokiko grafia normalizatua atxikitzea da irizpide nagusia, Nazio Batuen Erakundeak gomendatzen duen moduan. Irizpide orokor hori ia absolutua da urruneko leku-izenetarako (urruntasuna ez da geografiko hutsa, leku-izenaren garrantziaren araberako urruntasuna ulertu behar da), baina tradizioak ere badu garrantzia —maiz, euskaldunek leku horiekin izandako harremanen bidez finkatu da leku-izenen erabilera—, gure inguruko hizkuntzen jokabidean ere ikusten den moduan.

Horregatik, Europako eskualde historiko-politikoaren euskarazko grafia edo aldaera arautzeko orduan, kontuan hartu du Euskaltzaindiak, lehen-lehenik, euskarazko tradizioa. Duela gutxi arte euskarak ortografia baturik izan ez duenez, maiz gertatzen da euskarazko tradizioan eskualde beraren grafia-aldiera bi edo gehiago agertzea. Hala ere, tradizio hori da lehen iturria.

Adibidez, *Flandes* idatzi zuten Mitxelenak, Mendiburuk eta Iztuetak; *Flandres*, berriz, Lapitzek eta Piarres Etxeberrik; eta *Flandria* ageri da Miranderen eta Txillardegiren idazkietan. 2000. urteaz geroztik argitaratutako lanetan ere ageri da batasunik eza. Adibidez, *Flandria* idatzi dute Piarres Xarritonek, Joan Mari Lekuonak, Josu Zabaletak, Pablo Sastrek, Koro Navarrok, Juan Martin Elexpuruk edo Koldo Izagirrek; *Flandes*, berriz, Andu Lertxundik, Aingeru Epaltzak, Patziku Perurenak, Iñigo Aranbarrik, Felipe Juaristik, Jon Alonsok eta Iñaki Mendigurenek. Eta *Flandres* idatzi du Aurelia Arkotxak. *Flandes* ageri da Hegoaldean argitaratzen den *Berria* egunkarian; *Flandria*, aldiz, Iparraldean argitaratzen den *Herria* aldizkarian. Euskaraz argitaratu diren entziklopedietan ere ez dago erabateko batasunik.

Tradizioak behar beste argirik egiten ez duenean, kontuan hartu da gaur egungo erabilera. Alde horretatik, ohargarria da 1990eko hamarkadan euskarazko entziklopediagintzak egindako urratsek, Euskaltzaindiaren araurik ezean, euskal gizarte alfabetatua itzala izatea lortu dutela; alde horretatik, baliagarri gertatu dira batasun-oinarriak jartzeko (*Munduko leku-izenak*, Elhuyar, 1990; *Lur hiztegi entziklopedikoa*, Lur, 1991; *Elhuyar hiztegi entziklopedikoa*, Elhuyar, 1993; *Euskal hiztegi entziklopedikoa*, Klaudio Harluxet Fundazioa, 1995). Haien bidetik abiatu zen *Euskaldunon Egunkaria* kazeta ere (gaur egun, *Berría*), baita ikus-entzunezko komunikabideek ere, eta ez dago zalantzarik komunikabideek ere garrantzi handia dutela leku-izenen estandarizazioan. Azkenik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2005ean ikasmaterialetarako argitaratutako estilo-liburuaren *Onomastika* lana ere ildo horretan doa, aurreko lan haiek zabalduetako bidea sendotzen. Horiek guztiek bide bat adierazten dute tradizioak argi egiten ez duen kasu askotan.

Adibidez, nederlanderazko *Antwerpen* hiri eta probintziaren izena ez da oso erabilia izan euskarazko idatzizko tradizioan, ahoz erabiliko bazen ere. *Amberes* eta *Anveres* idatzi zuen Jose Ignazio Aranak; *Amberz* Lapitzek; *Anvers* Oskillasok; *Anberes* Enbeitak eta Iztuetak. Gaur egungo erabilerara joz gero, aldiz, batasuna hedatu samarra ikusten da: *Anberes* ageri da Lur, Elhuyar eta Harluxet entziklopedietan, baita *Berriaren* estilo-liburuan eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren estilo-liburuan ere. XXI. mende honetako literaturan ere, *Anberes* ageri da, adibidez, Piarres Xarriton, Andu Lertxundi, Koro Navarro, J.L. Olaizola "Txiliku", Unai Elorriaga edo Felipe Juaristiren lanetan.

Tradizioa eta egungo erabilera, biak hartu ditu kontuan Euskaltzaindiak araua lantzeko orduan. Zenbaitetan, hala eta guztiz ere, ez da nahi bezain argudio sendorik ageri arauaren balantza alde jakin batera makurrarazteko. Hala ere, kasu horiek, zorionez, bakanak dira.

# Europako eskualde historiko-politiko nagusiak

## Argibide-oharrak

### 1- Gaur egungo eskualdeak eta eskualde historikoak

Eskualde historikoak nahiz gaur egungoak, biak ageri dira zerrendan; guztira, 435 eskualde. Lehendik araututa dauden Espainiako eta Frantziako eskualdeak ere (32, 36, 149, 151. arauetan ageri direnak) sartu dira zerrenda honetan (**Akitania Berria, Andaluzia, Galizia, Normandia...**), izaera politiko-administratiboa baitute gaur egun. Bi estatu horietako eskualdeetan ere badira gaur egun izaera administratiboa dutenak eta ez dutenak. Espainiako eta Frantziako estatuen kasuan, gaur egun izaera administratiborik ez duten eskualdeak izarño batez (\*) lagunduta daude (adibidez: **Gaskoinia\***, **Gaztela Zaharra\***).

Gainerako estatuei dagokienez, berez luzea den zerrenda ez handitzearren, zerrendan ez dira beti agertzen estatuetakoa gaur egungo banaketa administratiboko eskualde guztiak, ezta eskualde historiko guzti-guztiak ere. Askotan, garrantzitsuenak, ezagunenak edo euskaraz jatorrizko hizkuntzan ez bezala idaztekoak direnak baino ez dira sartu. Nolanahi ere, estatu batzuetan gaur egungo eskualde politiko-administratibo guztiak sartu dira. Hauek dira datuak:

Alemania: *land* guztiak.

Austria: *land* guztiak.

Suitza: kantonamendu guztiak.

Italia: eskualde guztiak.

Belgika: probintzia guztiak.

Herbehereak: probintzia guztiak.

Suedia: makroeskualde guztiak.

Danimarka: eskualde guztiak.

Erresuma Batua: Ingalaterrako eskualde guztiak.

Finlandia: probintzia guztiak.

Hungaria: eskualde estatistiko guztiak.

Grezia: eskualde guztiak eta probintzia guztiak.

Zipre: barruti guztiak.

Errusia: errepublika guztiak.

Espainia: autonomia-erkidego guztiak (probintziak ez).

Frantzia: eskualde guztiak (departamenduak ez).

## 2- Grekoaren erromanizazioa

Antzinateko izen grekoak euskaraz emateko irizpideak 1999an eman zituen Euskaltzaindiak, 76. arauan. Horri jarraitu behar zaio, beraz, erabilera orokorrean, Greziako pertsona- eta leku-izen klasikoak euskaraz idazteko. Gaur egungo izen grekoak, ordea, greko modernoari dagozkio, eta greko moderno eta antzinako grekoa hizkuntza desberdinak dira. Greko moderno erromanizatzeko, hau da, latindar alfabetora pasatzeko, sistema bat baino gehiago erabili da nazioartean. Alabaina, gaur egun, nazioartean adostasun handia lortu da: Greziako ELOT 743 sistema onartu dute Nazio Batuen Erakundeak, ISO erakundeak, Europar Batasuneko Argitalpen Zerbitzuak eta Estatu Batuetako eta Erresuma Batuko BGN eta PCGN erakunde ofizialek ere.

Horiek horrela, komeni da euskara ere nazioarteko estandar horretara biltzea greko modernoaren izenatarako. Leku-izen klasikoetarako, ordea, 76. arauan zehazten diren irizpideak erabiliko dira. Arau honen hondarrean, eranskin gisa, greko modernoaren nazioarteko erromanizazio-taula ematen da.

## 3- Ahoskera

Arau honen helburua grafia finkatzea da, eta ez du ahoskerari buruzko jarraibiderik ematen. Hala eta guztiz ere, bi ohar egin beharra dago:

3.1- Euskaltzaindiaren 87. arauak (Euskara batuaren ahoskera zaindua) dio <j> letraren euskarazko ahoskera oinarritzkoa <y> dela eta hori dela hizkera zaindurako hobesten dena eta ez Hegoaldeko [x] belarra (gazt. *jamón*) eta Iparraldeko [ʒ] sabaiaurrekoa ere (fr. *jambon*). Hori kontuan hartu beharrekoa da *Jonia*, *Bujak*, *Jamalia* eta antzekoak ahoskatzeko orduan.

3.2- Halaber, ahoskera zaintzeko ahaleaginean, komeni da ikus-entzunezko komunikabideetan eta jendaurreko hitzaldi formaletan leku-izenen tokian tokiko ahoskera

kontuan hartzea jatorrizko grafia egokitzen ez denean, eta ez gaztelaniazko leku-izenak edo frantsesezko leku-izenak balira bezala ahoskatzea. Adibidez, Portugalgo *Alentejo* edo *Ribatejo* eskualdeetako <j> letraren ahoskera [ʒ] da (frantsesez *alliage* ahoskatzen den moduan, edo Argentinako espainieran *yo* ahoskatzen den moduan). Era berean, Suitzako *Ticino* kantonamenduan italieraz egiten da, eta italieraz <c> letraren ahoskera afrikatua da <i> eta <e> bokalen aurrean; beraz, [titxino] ahoskatzekoa da. Halaber, kontuan hartzekoa da alemanezko <w> letra ez dela ingelesezko <w> letra bezala ahoskatzen, frantsesezko *valve* bezala baizik. Beraz, *Westfalia* eskualde-izenaren lehen silaba ez da ingelesezko *west* hitza bezala ahoskatzekoa. Eta, gure bi auzo-erdareei dagokienez, Frantziako *Anjou* edo *Artois* eskualdeak frantsesez bezala ahoskatzekoak dira; eta Espainiako *Jaén* probintzia-izenaren <j> letra gaztelaniazko <j> bezala ahoskatzekoa da (*jamón*) eta ez euskara batuaren ahoskera zainduko <j> bezala (*yateko*).

#### 4- Izendapen bikoitzak

Batzuetan, eskualdearen bi izendapen ageri dira euskarazko zerrendan. Bi izendapenak barra etzanez bereizita daudenean <**A / B**>, biak maila berean onartzen dira. Adibidez: **Brandenburgo / Brandenburg** edo **Kornualles / Kornubia**. Lehenengo izendapenaren ondoren bigarren izendapena parentesi artean ezarri da <**A(B)**> bigarren izendapena bigarren mailan onartzen dela adierazteko (izen ofizial osoa delako edo esparru murriztagoko erabilera duelako). Adibidez: **Adigea (Adigeako Errepublika)** edo **Eslavonia (Esklavonia)**.

# Europako eskualde historiko-politiko nagusiak

## Euskara-erdarak zerrenda

EUSKARA <sup>1</sup>	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	JATORRIZKO IZENA <sup>2</sup>	ESTATUA <sup>3</sup>
<b>Abruzzo</b>	Abruzos (los)	Abruzzes (les)	Abruzzi / Abruzzo	Abruzzo	Italia
<b>Adigea</b> (Adigeako Errepublika)	Adiguesia	Adyguée	Adygea	Республика Адыгея (errusiera) / Адыгэ Республик (adigera)	Errusia
<b>Aga-Buriatia</b>	Buriatos de Aguínskoye / Aga Buriatia	Aga-Bouriatie	Agin-Buryat Okrug / Aga Buryatia	Агінский-Бурятский округ (errusiera) / Агын Буярадай округ (buriatera)	Errusia
<b>Akaia</b>	Acaya	Achaïe	Achaea	Ἀχαΐα [Achaía]	Grezia

<sup>1</sup> Gogoan izan **a** letraz amaitutako leku-izen baten eskuinean (**-a**) agertzeak adierazten duela leku-izenaren amaierako **a** letra artikulua dela, ez dela berezkoa. Beraz, *nongo*, *nondik*, *nora*, *noraino*, *norantz* kasuetan deklinatzen denean, galdu egiten du artikulua. Adibidez, **Milanerria**, **Milanerriak**, **Milanerriari**, **Milanerriarekin...** eta **Aostako Harana**, **Aostako Haranak**, **Aostako Haranari**, **Aostako Haranarekin...**, baina **Milanerriko** (eta ez *\*Milanerriako*), **Milanerritik**, **Milanerrira**, **Milanerriraino**, **Milanerrirantz** eta **Aostako Haraneko** (eta ez *\*Aostako Haranako*), **Aostako Haranetik**, **Aostako Haranera**, **Aostako Haraneraino**, **Aostako Haranerantz**; baita partitiboan eta prolatiboan ere: **Milanerririk**, **Milanerritzat** eta **Aostako Haranik**, **Aostako Harantzat**. (*non* kasuan, berriz, jokabidea bikoitza da: leku-izena bokalez bukatzen bada, ez du galtzen: **Milanerrian**. Kontsonantez bukatzen bada, galdu egiten du: **Aostako Haranean**). Halaber galtzen du artikulua ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean: **Milanerri osoan**, **Milanerri maitea**, **Erdi Aroko Aostako Haran hura** (eta ez *\*Milanerria osoan*, *\*Milanerria maitea*, *Erdi Aroko Aostako \*Harana hura*).

Antzera gertatzen da pluralean ere: **ak** letra-multzoaz amaitutako leku-izen baten eskuinean (**-ak**) agertzeak adierazten du leku-izena pluralezkoa dela. Beraz, kontuan hartu behar da hori deklinatzeko orduan edo beste determinatzaile edo adjektibo bat daramanean. **Markak** leku-izena, adibidez, honela deklinatzen da: **Markak**, **Markek**, **Markei**, **Marketan**, **Marketatik**, **Marketara**, **Markekin...***nire haurtzaroko Marka haiek*, **Marka maiteak...**

<sup>2</sup> Besterik adierazten ez bada, eskualdeari dagokion estatuko hizkuntza ofizialean ageri da jatorrizko izena. Greziako eta Zibreko eskualdeetan, jatorrizko izena bi modutara ematen da: alfabeto grekoan eta aldamenean, parentesi artean, ELOT 734 nazioarteko sistema estandararen arabera erromanizaturik. Jatorrizko izena hizkuntza batean baino gehiagotan ematen denean, ondoan eta parentesi artean adierazten da zer hizkuntza den.

<sup>3</sup> Eskualde historiko askoren lurraldea gaur egungo estatu batean baino gehiagotan banatuta dago, muga historikoak eta gaur egungoak, maiz, ez baitatoz bat. Adibidez, **Silesia** eskualde historikoa gaur egungo Polonia, Txekia eta Alemania artean banatuta dago; **Polesia** eskualde historikoa gaur egungo Ukraina, Bielorrusia eta Polonia artean banatuta dago. Zutabe honetan, nolana ere, estatu bat baino ez da aipatzen, zutabean ematen den informazioaren helburua eskualdearen kokapen geografikoari buruzko informazio orokorra, ez osoa, ematea besterik ez baita.

EUSKARA <sup>1</sup>	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	JATORRIZKO IZENA <sup>2</sup>	ESTATUA <sup>3</sup>
<b>Akitania*</b>	Aquitania	Aquitaine	Aquitaine	Aquitaine	Frantzia
<b>Akitania Berria</b>	Nueva Aquitania	Nouvelle-Aquitaine	Nouvelle-Aquitaine	Nouvelle-Aquitaine	Frantzia
<b>Åland<sup>4</sup></b>	Åland	Åland	Åland	Ahvenanmaa (finlandiera) / Åland (suediera)	Finlandia
<b>Albret / Labrit*</b>	Albret / Labrit	Albret / Labrit	Albret / Labrit / Lebret	Albret / Labrit	Frantzia
<b>Alentejo Beherea (-a)</b>	Baixo Alentejo / Bajo Alentejo	Baixo Alentejo (Bas Alentejo)	Baixo Alentejo (Lower Alentejo)	Baixo Alentejo	Portugal
<b>Alentejo Garaia (-a)</b>	Alto Alentejo	Alto Alentejo (Haut Alentejo)	Alto Alentejo (Upper Alentejo)	Alto Alentejo	Portugal
<b>Algarve</b>	Algarve	Algarve	Algarve	Algarve	Portugal
<b>Alsazia*</b>	Alsacia	Alsace	Alsace	Alsace	Frantzia
<b>Altai (Altaiko Errepublikak)</b>	Altái	Altaï	Altai	Республика Алтай (errusiera) / Алтай Республика (altaiera)	Errusia
<b>Anberes</b>	Amberes	Anvers	Antwerp	Antwerpen (nederlandera) / Anvers (frantsesa)	Belgika
<b>Andaluzia (Andaluziako Autonomia Erkidegoa)</b>	Andalucía	Andalousie	Andalusia	Andalucía (Comunidad Autónoma de Andalucía)	Espainia
<b>Anjou*</b>	Anjou	Anjou	Anjou	Anjou	Frantzia
<b>Aostako Harana (-a)</b>	Aosta (Valle de)	Aoste (Val d')	Valle d'Aosta / Aosta Valley	Aosta (Valle d')	Italia
<b>Appenzell Ausserrhoden</b>	Appenzell Rodas Exteriores	Appenzell Rhodes-Extérieures	Appenzell Ausserrhoden	Appenzell Ausserrhoden	Suitza
<b>Appenzell Innerrhoden</b>	Appenzell Rodas Interiores	Appenzell Rhodes-Intérieures	Appenzell Innerrhoden	Appenzell Innerrhoden	Suitza
<b>Apulia</b>	Apulia	Pouilles	Puglia	Puglia	Italia
<b>Aragoi (Aragoiko Autonomia Erkidegoa)</b>	Aragón	Aragon	Aragon	Aragón (Comunidad Autónoma de Aragón)	Espainia
<b>Argolida</b>	Argólida	Argolide	Argolis	Αργολίδα [Argólida]	Grezia
<b>Argovia</b>	Argovia	Argovie	Aargau	Aargau	Suitza
<b>Arkadia</b>	Arcadia	Arcadie	Arcadia	Αρκαδία [Arkadía]	Grezia
<b>Arta</b>	Arta	Arta	Arta	Άρτα [Árta]	Grezia

<sup>4</sup> Zeinu diakritikoarekin (**Åland**) nahiz gabe (**Aland**) idatz daiteke. Euskarazko testu arruntetan, ohikoa da diakritiko bereziak (gure ingurunean ohikoak ez direnak) ez idaztea.



EUSKARA <sup>1</sup>	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	JATORRIZKO IZENA <sup>2</sup>	ESTATUA <sup>3</sup>
<b>Artois*</b>	Artois	Artois	Artois	Artois	Frantzia
<b>Asturiasko Printzerria (-a) / Asturias</b> (Asturiasko Printzerriko Autonomia Erkidegoa) <sup>5</sup>	Principado de Asturias / Asturias	Principauté des Asturies / Asturies	Principality of Asturias	Principado de Asturias / Asturias (Comunidad Autónoma del Principado de Asturias)	Espainia
<b>Atenas</b>	Atenas	Athènes	Athens	Αθήνα [Athína]	Grezia
<b>Atika</b>	Ática	Attique	Attica	Αττική [Attikí]	Grezia
<b>Atos mendia / Mendi Santuko Errepublikako Monastiko Autonomia (-a)</b>	Monte Athos / Estado Monástico Autónomo de la Montaña Sagrada	Mont Athos / La République monastique de la Sainte Montagne	Mount Athos / Autonomous Monastic State of the Holy Mountain	Όρος Άθως / Αυτόνομη Μοναστική Πολιτεία Αγίου Όρους [Όρος Άθος / Αftónomi Monastikí Politía Ayíou Órous]	Grezia
<b>Austrasia</b>	Austrasia	Austrasie	Austrasia	Austrasien	Alemania
<b>Austria Beherea (-a)</b>	Baja Austria	Basse-Autriche	Lower Austria	Niederösterreich	Austria
<b>Austria Garaia (-a)</b>	Alta Austria	Haute-Autriche	Upper Austria	Oberösterreich	Austria
<b>Auvernia*</b>	Auvernia	Auvergne	Auvergne	Auvergne	Frantzia
<b>Auvernia-Rodano-Alpeak</b>	Auvergne-Rhône-Alpes	Auvernia-Ródano-Alpes	Auvergne-Rhône-Alpes	Auvergne-Rhône-Alpes	Frantzia
<b>Azoreak (-ak)</b>	Azores	Açores	Azores	Açores / Região Autónoma dos Açores	Portugal
<b>Baden-Württemberg</b>	Baden-Wurtemberg	Bade-Wurtemberg	Baden-Württemberg.	Baden-Württemberg	Alemania
<b>Balear Uharteak (-ak) / Balearrak (-ak)</b> (Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa)	Illes Balears / Islas Baleares / Baleares	Îles Baléares	Balearic Islands	Illes Balears / Islas Baleares / Baleares (Comunidad Autónoma de las Illes Balears)	Espainia
<b>Banat</b>	Banato	Banat	Banat	Banat	Errumania
<b>Barne Karniola</b>	Carniola Interior	Carniole-Intérieure	Inner Carniola	Notranjska	Eslovenia
<b>Basilea Herrialdea (-a)</b>	Basilea-Campiña	Bâle-Campagne	Basel-Country	Basel-Landschaft	Suitza
<b>Basilea Hiria (-a)</b>	Basilea-Ciudad	Bâle-Ville	Basel-City	Basel-Stadt	Suitza
<b>Basilicata</b>	Basilicata	Basilicate	Basilicata	Basilicata	Italia
<b>Bavaria</b>	Baviera	Bavière	Bavaria	Bayern	Alemania
<b>Baxkortostan /</b>	Bashkortostán /	Bachkortostan /	Bashkortostan /	Республика	Errusia

<sup>5</sup> Asturietako Printzerria (-a) izen historiko gisa erabil daiteke.

EUSKARA <sup>1</sup>	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	JATORRIZKO IZENA <sup>2</sup>	ESTATUA <sup>3</sup>
<b>Baxkiria</b> (Baxkortostango Errepublikak)	Baskiria / Bashkiria	Bachkirie	Bashkiria	Башкортостан (errusiera) / Башкортостан Республикаһы (baxkirera)	
<b>Bearno / Biarno*</b>	Bearn	Bearn	Béarn	Béarn	Frantzia
<b>Beira Beherea (-a)</b>	Beira Baixa / Beira Baja	Beira Baixa	Beira Baixa (Lower Beira)	Beira Baixa	Portugal
<b>Beira Garaia (-a)</b>	Beira Alta	Beira Alta	Beira Alta (Upper Beira)	Beira Alta	Portugal
<b>Beozia</b>	Beocia	Béotie	Boeotia	Βοιωτία [Voiotía]	Grezia
<b>Berlin</b>	Berlín	Berlin	Berlin	Berlin	Alemania
<b>Berna</b>	Berna	Berne	Berne	Bern	Suitza
<b>Berry*</b>	Berry	Berry	Berry	Berry	Frantzia
<b>Besarabia</b>	Besarabia	Bessarabie	Bessarabia	Basarabia	Errumania
<b>Bigorra*</b>	Bigorra	Bigorre	Bigorre	Bigorre (frantsesa) / Bigòrra (okzitaniera)	Frantzia
<b>Bohemia</b>	Bohemia	Bohême	Bohemia	Čechy	Txekia
<b>Borboierria* (-a)</b>	Borbonés / Borbonesado	Bourbonnais	Bourbonnais	Bourbonnais	Frantzia
<b>Borgoia*<sup>6</sup></b>	Borgoña	Bourgogne	Burgundy (Bourgogne)	Bourgogne	Frantzia
<b>Borgoia - Franche-Comté</b>	Borgoña	Bourgogne-Franche-Comté	Bourgogne-Franche-Comté	Bourgogne-Franche-Comté	Frantzia
<b>Bosnia eta Herzegovinako Federazioa (-a)</b>	Federación de Bosnia-Herzegovina	Fédération de Bosnie et Herzégovine	Federation of Bosnia and Herzegovina	Federacija Bosne i Hercegovine (bosniera) / Федерација Босне и Херцеговине (serbiera)	Bosnia-Herzegovina
<b>Bosniako Serbiar Errepublikak</b>	República Serbia	République serbe de Bosnie	Republic of Srpska	Република Српска (serbiera) / Republika Srpska (bosniera)	Bosnia-Herzegovina
<b>Brabante</b>	Brabante	Brabant	Brabant	Brabant	Belgika
<b>Brandenburg / Brandeburgo</b>	Brandeburgo	Brandebourg	Brandenburg	Brandenburg	Alemania
<b>Bremen</b>	Bremen	Brême	Bremen	Bremen	Alemania
<b>Bretainia</b>	Bretaña	Bretagne	Brittany (Bretagne)	Bretagne	Frantzia
<b>Bujak</b>	Budjak	Boudjak	Budjak / Budzhak /	Буджак	Ukraina

<sup>6</sup> **Burgundia** izen historiko gisa erabil daiteke.

EUSKARA <sup>1</sup>	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	JATORRIZKO IZENA <sup>2</sup>	ESTATUA <sup>3</sup>
			Bujak / Buchak		
<b>Bukovina</b>	Bucovina	Bukovine	Bukovina	Bucovina	Errumania
<b>Bureba*</b>	Bureba	Bureba	Bureba	Bureba	Espania
<b>Burgenland</b>	Burgenland	Burgenland	Burgenland	Burgenland	Austria
<b>Buriatia</b> (Buriatiako Errepublikak)	Buriatia	Bouriatie	Bouriatie Buryatia	Республика Бурятия (errusiera) / Буриад Республика (buriatera)	Errusia
<b>Calabria</b>	Calabria	Calabre	Calabria	Calabria	Italia
<b>Campania</b>	Campania	Campanie	Campania	Campania	Italia
<b>Connacht / Connachta</b>	Connacht	Connacht	Connacht	Connacht (ingelesa) / Connachta (irlandera)	Irlanda
<b>Crişana<sup>7</sup></b>	Crişana	Crişana	Crişana	Crişana	Errumania
<b>Dagestan</b> (Dagestango Errepublikak)	Daguestán / Daghestan	Daguestan / Daghestan	Dagestan / Daghestan	Республика Дагестан (errusiera)	Errusia
<b>Dalarna<sup>8</sup>/Dalekarlia<sup>9</sup></b>	Dalecarlia	Dalécarlie	Dalecarlia / Dalekarlia	Dalarna	Suedia
<b>Dalmazia</b>	Dalmacia	Dalmatie	Dalmatia	Dalmacija	Kroazia
<b>Dobruja</b>	Dobruja	Dobroudja / Dobrogée (antzinako izena)	Dobruja / Dobrudja	Dobrogea	Errumania
<b>Dodekaneso</b>	Dodecaneso	Dodécánèse	Dodecanese	Δωδεκάνησα [Dodekánisa]	Grezia
<b>Dofinerria* (-a)</b>	Delfinado	Dauphiné	Dauphiné	Dauphiné	Frantzia
<b>Donbass</b>	Donbass	Donbass	Donets Basin / Donbass / Donbas	Донецкий бассейн / Донбас	Ukraina
<b>Douro Litoral / Kostaldeko Duero</b>	Douro Litoral / Duero Litoral	Douro Litoral	Douro Litoral	Douro Litoral	Portugal
<b>Drama</b>	Drama	Dráma	Drama	Δράμα [Dráma]	Grezia
<b>Drenthe</b>	Drente	Drenthe	Drenthe	Drenthe	Herbehe.
<b>Dzūkija<sup>10</sup> / Dainava</b>	Dzūkija	Dzūkija / Dainava	Dzūkija / Dainava	Dzūkija	Lituania
<b>East Anglia / Ekialdeko Anglia</b>	Anglia Oriental	Est-Anglie	East Anglia	East Anglia	Erresuma Batua
<b>Ekialde Handia</b>	Gran Este	Grand Est	Grand Est	Grand Est	Frantzia
<b>Ekialdeko Atika</b>	Ática Oriental	Attique de l'Est	East Attica	Αττική [Ανατολικής]	Grezia

<sup>7</sup> Zeinu diakritikoarekin (**Crişana**) nahiz gabe (**Crisana**) idatz daiteke. Euskarazko testu arruntetan, ohikoa da diakritiko bereziak (gure ingurunean ohikoak ez direnak) ez idaztea.

<sup>8</sup> Gaur egungo konderrria.

<sup>9</sup> Probintzia historikoa.

<sup>10</sup> Zeinu diakritikoarekin (**Dzūkija**) nahiz gabe (**Dzukija**) idatz daiteke. Euskarazko testu arruntetan, ohikoa da diakritiko bereziak (gure ingurunean ohikoak ez direnak) ez idaztea.

EUSKARA <sup>1</sup>	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	JATORRIZKO IZENA <sup>2</sup>	ESTATUA <sup>3</sup>
				Αττικής] [Attiki]	
<b>Ekialdeko Finlandia</b>	Finlandia Oriental	Finlande-Orientale	Eastern Finland	Itä-Suomi (finlandiera) / Östra Finland (suediera)	Finlandia
<b>Ekialdeko Flandria</b>	Flandes Oriental	Flandre orientale	East Flanders	Oost- Vlaanderen (nederlandera ) / Flandre orientale (frantsesa)	Belgika
<b>Ekialdeko Ingalaterra</b>	Este de Ingalaterra	Angleterre de l'Est	East of England	East of England	Erresuma Batua
<b>Ekialdeko Mazedonia eta Trazia</b>	Macedonia oriental y Tracia	Macédoine de l'Est et Thrace	East Macedonia and Thrace	Ανατολική Μακεδονία και Θράκη [Anatoliki Makedonia ke Thráki]	Grezia
<b>Ekialdeko Midlands</b>	Midlands Orientales	Midlands de l'Est	East Midlands	East Midlands	Erresuma Batua
<b>Ekialdeko Prusia</b>	Prusia Oriental	Prusse-Orientale	East Prussia	Ostpreußen	Alemania
<b>Elide</b>	Élide	Élide	Ilia / Elis	Ηλεία [Ileia]	Grezia
<b>Ematia</b>	Emacia	Imathie / Émathie	Imathia	Ημαθία [Imathía]	Grezia
<b>Emilia-Romagna</b>	Emilia-Romaña	Émilie-Romagne	Emilia-Romagna	Emilia- Romagna	Italia
<b>Epiro</b>	Epiro	Épire	Epirus	Ἠπειρος [Ípiros]	Grezia
<b>Erdialdea - Loira Harana</b>	Centro-Valle de Loira	Centre-Val de Loire	Centre-Val de Loire	Centre-Val de Loire	Frantzia
<b>Erdialdeko Grezia</b>	Grecia Central	Grèce central	Central Greece	Στερεά Ελλάδα [Stereá Elláda]	Grezia
<b>Erdialdeko Hungaria</b>	Hungría Central	Hongrie centrale	Central Hungary	Közép- Magyarország	Hungaria
<b>Erdialdeko Jutlandia</b>	Jutlandia Central	Jutland-Central	Central Jutland	Midtjylland	Danimarka
<b>Erdialdeko Mazedonia</b>	Macedonia Central	Macédoine centrale	Central Macedonia	Κεντρικής Μακεδονίας [Kentrikís Makedonías]	Grezia
<b>Erdialdeko Transdanubia</b>	Transdanubia central	Transdanubie centrale	Central Transdanubia	Közép- Dunántúl	Hungaria
<b>Errioxa (Errioxako Autonomia Erkidegoa)</b>	La Rioja	La Rioja	La Rioja	La Rioja (Comunidad Autónoma de La Rioja)	Espainia
<b>Errusia Zuria (-a)</b>	Rusia Blanca	Russie blanche	White Russia	Белая Русь	Bielorrusia
<b>Eskandinavia</b>	Escandinavia	Scandinavie	Scandinavia	Skandinavien (daniera eta suediera) / Skandinavia	Makroesku aldea

EUSKARA <sup>1</sup>	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	JATORRIZKO IZENA <sup>2</sup>	ESTATUA <sup>3</sup>
				(norvegiera)	
<b>Eskania</b>	Escania	Scanie	Scania	Skåne	Suedia
<b>Eskozia</b>	Escocia	Écosse	Scotland	Scotland / Alba	Erresuma Batua
<b>Eslavonia</b> (Esklavonia)	Eslavonia (Esclavonia)	Slavonie (Esclavonie)	Slavonia (Sclavonia)	Slavonija	Kroazia
<b>Esloveniar Karintia</b>	Carintia	Carinthie	Carinthia / Slovene Carinthia	Spodnja Koroška / Slovenska Koroška	Eslovenia
<b>Essex</b>	Essex	Essex	Essex	Essex	Erresuma Batua
<b>Estiria</b>	Estiria	Styrie	Styria	Steiermark	Austria
<b>Estiria Beherea (-a)</b>	Baja Estiria	Basse-Styrie	Lower Styria	Spodnja Štajerska	Eslovenia
<b>Estremadura</b>	Estremadura	Estremadura	Estremadura	Estremadura	Portugal
<b>Etolia-Akarnania</b>	Etolia-Acarnania	Étolie-Acarnanie	Aetolia-Acarnania	Αιτωλοακαρνανία [Aitolokarnania]	Grezia
<b>Eubea</b>	Eubea	Eubée	Euboea	Εύβοια [Évvoia]	Grezia
<b>Euritania</b>	Euritania	Eurytanie / Évrytanie	Evrytania / Evrítania	Ευρυτανία [Evrítania]	Grezia
<b>Euskal Autonomia Erkidegoa (-a)</b>	País Vasco / Euskadi	Pays basque	Basque Country	Euskadi / País Vasco <sup>11</sup>	Espainia
<b>Evenkia</b>	Evenkia	Évenkie	Evenkia	Эвенкийский автономный округ (errusiera) / Эведы Автомоды Округ (evenkera)	Errusia
<b>Extremadura</b> (Extremadurako Autonomia Erkidegoa)	Extremadura	Estrémadure	Extremadura	Extremadura (Comunidad Autónoma de Extremadura)	Espainia
<b>Famagusta</b>	Famagusta	Famagouste	Famagusta	Αμμόχωστος (Ammóchostos)	Zipre
<b>Faroe uharteak (-ak)</b>	Faroe	Féroé	Faroe / Faeroe	Færøerne (daniera) / Føroyar (faroera)	Danimarka
<b>Flandria<sup>12</sup></b>	Flandes	Flandre	Flanders	Vlaanderen (nederlandera) / Flandre (frantsesa)	Belgika

<sup>11</sup> (izen ofiziala: Euskal Autonomia Erkidegoa / Comunidad Autónoma del País Vasco)

<sup>12</sup> **Flandes** izen historiko gisa erabil daiteke.

EUSKARA <sup>1</sup>	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	JATORRIZKO IZENA <sup>2</sup>	ESTATUA <sup>3</sup>
<b>Flandriako Brabante</b>	Brabante flamenco	Brabant flamand	Flemish Brabant	Vlaams-Brabant (nederlandera) / Brabant flamand (frantsesa)	Belgika
<b>Flevoland</b>	Flevolanda	Flevoland	Flevoland	Flevoland	Herbehe.
<b>Florina</b>	Florina	Flórina	Florina	Φλώρινα [Flórina]	Grezia
<b>Fozida</b>	Fócida / Fócide	Phocide	Phocis	Φωκίδα [Fokída]	Grezia
<b>Franche-Comté*</b>	Franco Condado	Franche-Comté	Franche-Comté	Franche-Comté	Frantzia
<b>Frantzia Garaia</b>	Alta Francia	Hauts-de-France	Hauts-de-France	Hauts-de-France	Frantzia
<b>Frankonia</b>	Franconia	Franconie	Franconia	Franken	Alemania
<b>Friburgo</b>	Friburgo	Fribourg	Fribourg	Freiburg (alemana) / Fribourg (frantsesa)	Suitza
<b>Frisia</b>	Frisia	Frise	Frisia	Friesland / Fryslân	Herbehe.
<b>Friuli-Venezia-Julia</b>	Friuli-Venecia Julia	Frioul-Vénétie julienne	Friuli-Venezia Giulia	Friuli-Venezia Giulia	Italia
<b>Ftiotida</b>	Ftiótide / Ptiótide	Phthiotide	Phthiotis	Φθιώτιδα [Fthiótida]	Grezia
<b>Gagauzia</b>	Gagauzia	Gagauzie	Gagauzia	Găgăuzia	Moldavia
<b>Gales</b>	Gales (País de)	Galles (le pays de)	Wales	Wales (ingelesa) / Cymru (galesa)	Erresuma Batua
<b>Galitzia</b>	Galicia / Galitzia	Galicie	Galicia	Galicja	Polonia
<b>Galizia</b> (Galiziako Autonomia Erkidegoa)	Galicia	Galice	Galicia	Galicia (Comunidad Autónoma de Galicia)	Espainia
<b>Gaskoinia*</b>	Gascuña	Gascogne	Gascony	Gascogne	Frantzia
<b>Gaztela Berria* (-a)</b>	Castilla la Nueva	Nouvelle-Castille	New Castile	Castilla la Nueva	Espainia
<b>Gaztela eta Leon</b> (Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoa)	Castilla y León	Castille-et-León	Castile and León	Castilla y León (Comunidad Autónoma de Castilla y León)	Espainia
<b>Gaztela Zaharra* (-a)</b>	Castilla la Vieja	Vieille-Castille	Old Castile	Castilla la Vieja	Espainia
<b>Gaztela-Mantxa</b> (Gaztela-Mantxako Autonomia Erkidegoa)	Castilla-La Mancha	Castille-La Manche	Castile-La Mancha	Castilla-La Mancha (Comunidad Autónoma de Castilla-La Mancha)	Espainia

EUSKARA <sup>1</sup>	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	JATORRIZKO IZENA <sup>2</sup>	ESTATUA <sup>3</sup>
<b>Gelderland</b>	Güeldres	Gueldre	Gelderland / Guelders	Gelderland	Herbehe.
<b>Geneva</b>	Ginebra	Genève	Geneva	Genève	Suitza
<b>Glaris</b>	Glaris	Glaris	Glarus	Glarus	Suitza
<b>Gorizia</b>	Gorizia	Gorizia	Gorizia	Gorizia / Gorica	Eslovenia
<b>Götaland</b>	Götaland / Gotalandia (zaharra)	Götaland	Götaland	Götaland	Suedia
<b>Grevena</b>	Grevená	Grevena	Grevena	Γρεβενά [Grevená]	Grezia
<b>Grisonia</b>	Grisones	Grisons	Grisons	Graubünden (alemana) / Grischun (erretorromani era) / Grigioni (italiera)	Suitza
<b>Groningen</b>	Groninga	Groningue	Groningen	Groningen	Herbehe.
<b>Guiena*</b>	Guyena	Guyenne	Guienne / Guyenne	Guyenne	Frantzia
<b>Hainaut<sup>13</sup></b>	Hainaut (antzina, Henao)	Hainaut	Hainaut	Hainaut (frantsesa) / Henegouwen (nederlandera)	Belgika
<b>Hanburgo / Hamburg</b>	Hamburgo	Hambourg	Hamburg	Hamburg	Alemania
<b>Hebro</b>	Hebros / Evros	Évros	Evros	Έβρος [Évros]	Grezia
<b>Hego Egeo</b>	Egeo meridional	Sud de l'Égée	South Aegean	Νότιο Αιγαίο [Nótio Egéo]	Grezia
<b>Hego Finlandia</b>	Finlandia Meridional	Finlande-Méridionale	Southern Finland	Etelä-Suomi (finlandiera) / Södra Finland (suediera)	Finlandia
<b>Hego Holanda</b>	Holanda Meridional	Hollande-Méridional / Hollande-du-Sud	South Holland	Zuid-Holland	Herbehe.
<b>Hegoaldeko Danimarka</b>	Dinamarca del Sur	Danemark-du-Sud	South Denmark	Syddanmark	Danimarka
<b>Hegoaldeko Lautada Handia (-a)</b>	Gran Llanura del Sur	Grande plaine du Sud	Southern Great Plain	Dél-Alföld	Hungaria
<b>Hegoaldeko Transdanubia</b>	Transdanubia meridional	Transdanubie Méridionale	Southern Transdanubia	Dél-Dunántúl	Hungaria
<b>Hego-ekialdeko Ingalaterra</b>	Inglaterra del Sudeste	Angleterre du Sud-Est	South East England	South East England	Erresuma Batua
<b>Hego-mendebaldeko Ingalaterra</b>	Inglaterra del Sudoeste	Angleterre du Sud-Ouest	South West England	South West England	Erresuma Batua
<b>Heraklion</b>	Heraklion / Heraclión / Herakleion / Iraklion / Candía	Héraklion / Iráklío / Candie	Heraklion / Heraklio / Iraklion / Candia	Ηράκλειο [Irákleio]	Grezia

<sup>13</sup> Henao izen historiko gisa erabil daiteke.

EUSKARA <sup>1</sup>	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	JATORRIZKO IZENA <sup>2</sup>	ESTATUA <sup>3</sup>
<b>Hessen</b>	Hesse	Hesse	Hesse	Hessen	Alemania
<b>Holanda</b>	Holanda	Hollande	Holland	Holland	Herbehe.
<b>Holstein</b>	Holstein	Holstein	Holstein	Holstein	Alemania
<b>Hovedstaden</b>	Hovedstaden (Capital)	Hovedstaden (région de la Capitale)	Hovedstaden (Danish Capital Region / Copenhagen Capital Region)	Hovedstaden	Danimarka
<b>Île-de-France</b>	Isla de Francia	Île-de-France	Île-de-France	Île-de-France	Frantzia
<b>Ingalaterra</b>	Inglaterra	Angleterre	England	England	Erresuma Batua
<b>Inguxetia</b> (Inguxetiako Errepublika)	Ingushetia	Ingouchie	Ingushetia	Республика Ингушетия (errusiera) / ГялгӀай Мохк (inguxera)	Errusia
<b>Ipar Brabante</b>	Brabante Septentrional	Brabant-Septentrional / Brabant-du-Nord	North Brabant	Noord-Brabant	Herbehe.
<b>Ipar Egeo</b>	Egeo septentrional	Nord de l'Égée	North Aegean	Βόρειο Αιγαίο [Vório Egéo]	Grezia
<b>Ipar Holanda</b>	Holanda Septentrional	Hollande-Septentrionale / Hollande-du-Nord	North Holland	Noord-Holland	Herbehe.
<b>Ipar Irlanda</b>	Irlanda del Norte	Irlande du Nord	Northern Ireland	Northern Ireland (ingeleza) / Tuaisceart Éireann (irlandera)	Erresuma Batua
<b>Ipar Jutlandia</b>	Jutlandia Septentrional	Jutland-du-Nord	North Jutland	Nordjylland	Danimarka
<b>Ipar Osetia-Alania</b> (Ipar Osetia-Alaniako Errepublika)	Osetia del Norte-Alania	Ossétie-du-Nord-Alanie	North Ossetia-Alania	Республика Северная Осетия-Алания (errusiera) / Цӕгат Ирыстон Аланийы Республикæ (osetiera)	Errusia
<b>Ipar Renania - Westfalia</b>	Renania del Norte-Westfalia	Rhénanie-du-Nord-Westphalie	North Rhine-Westphalia	Nordrhein-Westfalen	Alemania
<b>Ipar Zipreko Turkiar Errepublika</b>	República Turca del Norte de Chipre	République turque de Chypre du Nord	Turkish Republic of Northern Cyprus	Kuzey Kıbrıs Türk Cumhuriyeti	Zipre
<b>Ipar-ekialdeko Ingalaterra</b>	Inglaterra del Nordeste	Angleterre du Nord-Est	North East England	North East England	Erresuma Batua
<b>Ipar-mendebaldeko Ingalaterra</b>	Inglaterra del Noroeste	Angleterre du Nord-Ouest	North West England	North West England	Erresuma Batua
<b>Iparraldeko Hungaria</b>	Hungría del Norte	Hongrie septentrionale	Northern Hungary	Észak-Magyarország	Hungaria
<b>Iparraldeko Lautada</b>	Gran Llanura del Norte	Grande plaine du Nord	Northern Great Plain	Észak-Alföld	Hungaria



EUSKARA <sup>1</sup>	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	JATORRIZKO IZENA <sup>2</sup>	ESTATUA <sup>3</sup>
<b>Handia (-a)</b>					
<b>Istria</b>	Istria	Istrie	Istria	Istra	Kroazia
<b>Jamalia</b>	Yamalia	Iamalie	Yamalia	Ямáло-Нене́цкий автономный о́круг (errusiera) / Ямáлы-Нене́цие” автономной о́круг (nenetsera)	Errusia
<b>Jatorrizko Finlandia</b>	Finlandia Genuina	Finlande du Sud-Ouest	Finland Proper	Varsinais-Suomi (finlandiera) / Egentliga Finland (suediera)	Finlandia
<b>Jazetania*</b>	Jacetania	Jacetania	Jacetania	Jacetania (gaztelania) / Chazetania (aragoiera)	Espainia
<b>Joanina / Ioanina</b>	Ioanina	Ioannina	Ioannina	Ιωάννινα / Γιάννενα / Γιάννινα [Ioánnina]	Grezia
<b>Joniako Uharteak (-ak)</b>	Islas Jónicas	Îles ioniennes	Ionian Islands	Ιόνια νησιά [Íónia Nisiá]	Grezia
<b>Juduen Probintzia Autonomoa (-a)</b>	Provincia Autónoma Hebrea	Oblast autonome juif	Jewish Autonomous Oblast	Еврѣйская автономная о́бласть (errusiera) / <b>עִיִּישׁ אױטוֹנאָמאָע טעגט</b> (yiddish-a)	Errusia
<b>Jura</b>	Jura	Jura	Jura	Jura	Suitza
<b>Jutlandia</b>	Jutlandia	Jutland	Jutland	Jylland	Danimarka
<b>Kabardino-Balkaria</b> (Kabardino-Balkariako Errepublikak)	Kabardino-Balkaria	Kabardino-Balkarie	Kabardino-Balkaria	Кабардино-Балкарская Республика (errusiera) / Къэбэрдей-Балъкъэр Республикэ (kabardera) / Къабарты-Малкъар Республика (balkarera)	Errusia
<b>Kalmukia</b> (Kalmukiako Errepublikak)	Kalmukia	Kalmoukie	Kalmykia	Республика Калмыкия (errusiera) / Хальмг Таңһч (kalmukera)	Errusia
<b>Kaltzidika</b>	Calcídica	Chalcidique	Chalkidiki / Halkidiki / Chalcidice	Χαλκιδική [Chalkidiki]	Grezia

EUSKARA <sup>1</sup>	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	JATORRIZKO IZENA <sup>2</sup>	ESTATUA <sup>3</sup>
<b>Kanariak (-ak)</b> (Kanarietako Autonomia Erkidegoa)	Canarias	Canaries	Canary Islands	Canarias (Comunidad Autónoma de Canarias)	Espainia
<b>Kanea</b>	Canea / Hania	Canée / Chania / Hania	Chania	Χανιά [Chaniá]	Grezia
<b>Kantabria</b> (Kantabriako Autonomia Erkidegoa)	Cantabria	Cantabrie	Cantabria	Cantabria (Comunidad Autónoma de Cantabria)	Espainia
<b>Karantania</b>	Carantania	Carantanie	Karantania / Carantania	Karantanija / Korotan	Eslovenia
<b>Karatxai-Txerkesia</b> (Karatxai-Txerkesiako Errepublikak)	Karacháevo-Cherkesia / Karachái-Cherkesia	Karatchaïévo-Tcherkessie	Karachay-Cherkessia	Карачаево-Черкесская Республика (errusiera) / Къарачай-Черкес Республика (karatxaiera) / Къэрэшей-Шэрджэс Республикэ (txerkesera / kabardera)	Errusia
<b>Karditsa</b>	Karditsa	Karditsa	Karditsa	Καρδίτσα [Kardítsa]	Grezia
<b>Karelia</b>	Carelia	Carélie	Karelia	Karjala (finlandiera) / Karelen (suediera)	Finlandia
<b>Karelia</b> (Kareliako Errepublikak)	Carelia	Carélie	Karelia	Республика Карелия (errusiera)	Errusia
<b>Karintia</b>	Carintia	Carinthie	Carinthia	Kärnten	Austria
<b>Karnia</b>	Carnia	Carnie	Carnia	Carnia	Italia
<b>Karniola</b>	Carniola	Carniole	Carniola	Kranjska	Eslovenia
<b>Karniola Beherea (-a)</b>	Baja Carniola	Basse-Carniole	Lower Carniola	Dolenjska	Eslovenia
<b>Karniola Garaia (-a)</b>	Alta Carniola	Haute-Carniole	Upper Carniola	Gorenjska	Eslovenia
<b>Karniola Zuria (-a)</b>	Carniola Blanca	Carniole-Blanche	White Carniola	Bela krajina	Eslovenia
<b>Kastoria</b>	Kastoria	Kastoria	Kastoria	Καστοριά [Kastoriá]	Grezia
<b>Katalunia</b> (Kataluniako Autonomia Erkidegoa)	Cataluña	Catalogne	Catalonia	Cataluña (Comunidad Autónoma de Cataluña)	Espainia
<b>Kavala</b>	Kavala	Kavala	Kavala	Καβάλα [Kavála]	Grezia
<b>Kaxubia</b>	Casubia / Cachubia	Cachoubie	Kashubia	Kaszuby (poloniera) / Kaszëbë edo Kaszëbskô (kaxubiera)	Polonia
<b>Kent</b>	Kent	Kent	Kent	Kent	Erresuma

EUSKARA <sup>1</sup>	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	JATORRIZKO IZENA <sup>2</sup>	ESTATUA <sup>3</sup>
					Batua
<b>Khakasia</b> (Khakasiako Errepublika)	Jakasia	Khakassie	Khakassia / Khakasiya	Республика Хакасия (errusiera) / Хакасия Республикасы (khakasera)	Errusia
<b>Khanti-Mansi</b>	Janti-Mansi	Khantis-Mansis	Khantia-Mansia / Khantia-Mansia	Ханты-Мансийский автономный округ (errusiera)	Errusia
<b>Kilkis</b>	Kilkís	Kilkís	Kilkis	Κιλκίς [Kilkís]	Grezia
<b>Kios</b>	Quíos	Chios / Chio	Chios	Χίος [Chíos]	Grezia
<b>Kirenia</b>	Kirenia	Kyrenia	Kyrenia	Κερύνεια (Kerýneia)	Zipre
<b>Komi</b> (Komien Errepublika)	Komi	République des Komis / République komie	Komi	Республика Коми (errusiera) / Коми Республика (komiera)	Errusia
<b>Korfu</b>	Corfú	Corcyre ou Corfou	Corfu	Κέρκυρα [Kérkyra]	Grezia
<b>Koriakia</b>	Koriakia	Koriakie	Koryakia	Корякский округ, (errusiera) / Чав'чываокруг (koriakera)	Errusia
<b>Korintia</b>	Corintia	Corinthie	Corinthia	Κορινθία [Korinthía]	Grezia
<b>Kornualles / Kornubia</b>	Cornualles	Cornouailles	Cornwall	Cornwall (ingelesa) / Kernow (kornubiera)	Erresuma Batua
<b>Korsika</b>	Córcega	Corse	Corsica	Corse	Frantzia
<b>Kostaldea</b> (Esloveniako kosta)	Región del Litoral	Pays Côtier	Littoral	Primorska	Eslovenia
<b>Kostaldeko Beira</b>	Beira Litoral	Beira Litoral	Beira Litoral	Beira Litoral	Portugal
<b>Kozani</b>	Kozani	Kozani	Kozani	Κοζάνη [Kozáni]	Grezia
<b>Kreta</b>	Creta	Crète	Crete	Κρήτη [Kríti]	Grezia
<b>Krimea</b> (Krimeako Errepublika Autonomoa)	Crimea (República Autónoma de Crimea)	Crimée (République Autonome de Crimée)	Crimea (Autonomous Republic of Crimea)	Крим (Автономна Республика Крим)	Ukraina
<b>Kujabia</b>	Cujavia / Kuyavia	Cujavie / Coujavie	Kuyavia / Cuiavia	Kujawy	Polonia
<b>Kulmerlandia</b>	Tierra de Chelmo	Région de Chelmo	Chelmo Land / Culmland / Culmerland	Ziemia Chełmińska	Polonia
<b>Kurlandia</b>	Curlandia	Courlande	Courland	Kurzeme	Letonia
<b>Lakonia</b>	Laconia	Laconie	Laconia	Λακωνία [Lakonía]	Grezia

EUSKARA <sup>1</sup>	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	JATORRIZKO IZENA <sup>2</sup>	ESTATUA <sup>3</sup>
<b>Languedoc</b>	Languedoc	Languedoc	Languedoc	Languedoc	Frantzia
<b>Laponia</b>	Laponia	Laponie	Lapland	Lappland (suedieraz) / Sápmi (ipar-samieraz)	Suedia
<b>Laponia</b>	Laponia	Laponie	Lapland	Lappi (finlandiera) / Lappland (suediera)	Finlandia
<b>Larisa</b>	Larisa	Larissa	Larissa	Λάρισσα [Lárisa]	Grezia
<b>Larnaka</b>	Larnaca	Lárnaca	Larnaca	Λάρνακα (Lárnaka)	Zipre
<b>Lasiti</b>	Lasiti / Lasithi	Lassithi / Lasithí	Lasithi	Λασίθι [Lasíthi]	Grezia
<b>Latgalia</b>	Latgale / Latgalia	Latgale / Latgalie	Latgale / latgalia	Latgale	Letonia
<b>Lazio</b>	Lacio	Latium	Lazio	Lazio	Italia
<b>Leinster / Laighean</b>	Leinster	Leinster	Leinster	Leinster (ingelesa) / Laighean (irlandera)	Irlanda
<b>Lesbos</b>	Lesbos	Lesbos	Lesbos	Λέσβος [Lésvos]	Grezia
<b>Leukada<sup>14</sup></b>	Leucas	Leucade	Lefkada / Leucas	Λευκάδα [Lefkáda]	Grezia
<b>Lieja</b>	Lieja	Liège	Liège	Liège (frantsesa) / Luik (nederlandera)	Belgika
<b>Liguria</b>	Liguria	Ligurie	Liguria	Liguria	Italia
<b>Limasol</b>	Limassol / Limasol	Limassol	Limassol	Λεμεσός (Lemesós)	Zipre
<b>Limburg / Linburgo</b>	Limburgo	Limbourg	Limburg	Limburg (nederlandera) / Limbourg (frantsesa)	Belgika
<b>Limburg / Linburgo</b>	Limburgo	Limbourg	Limburg	Limburg	Herbehe.
<b>Limousin*</b>	Lemosín	Limousin	Limousin	Limousin	Frantzia
<b>Lituania Garaia (-a)</b>	Aukštaitija	Haute Lituanie	Aukštaitija	Aukštaitija	Lituania
<b>Lituania Txikia (-a) / Lituania Prusiarra (-a)</b>	Lituania Menor	Petite Lituanie / Lituanie prussienne / Lituanie mineure	Lithuania Minor / Prussian Lithuania	Mažoji Lietuva / Prūsų Lietuva	Lituania
<b>Livonia</b>	Livonia	Livonie	Livonia	Livonija	Letonia
<b>Loirerria</b>	País del Loira	Pays de la Loire	Pays de la Loire	Pays de la Loire	Frantzia
<b>Lombardia</b>	Lombardía	Lombardie	Lombardy	Lombardia	Italia
<b>Londres Handia (-a)</b>	Gran Londres	Grand Londres	Greater London	Greater London	Erresuma Batua

<sup>14</sup> Erdi Aroan, uharteak **Santa Marta** izena izan zuen.

EUSKARA <sup>1</sup>	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	JATORRIZKO IZENA <sup>2</sup>	ESTATUA <sup>3</sup>
<b>Lorrena</b>	Lorena	Lorraine	Lorraine	Lorraine	Frantzia
<b>Lotaringia*</b>	Lotaringia	Lotharingie	Lotharingia	Lotharingien	Frantzia
<b>Lusazia</b>	Lusacia	Lusace	Lusatia	Lausitz	Alemania
<b>Luxenburgo / Luxemburg</b>	Luxenburgo	Luxembourg	Luxembourg	Luxembourg (frantsesa) / Luxemburg (nederlandera)	Belgika
<b>Luzerna</b>	Lucerna	Lucerne	Lucerne	Luzern	Suitza
<b>Lyonerria* (-a)</b>	Lyonesado / Leonesado	Lyonnais	Lyonnais	Lyonnais	Frantzia
<b>Madeira</b>	Madeira	Madère	Madeira	Madeira / Região Autónoma da Madeira	Portugal
<b>Madrilgo Erkidegoa (-a) (Madrilgo Autonomia Erkidegoa)</b>	Comunidad de Madrid	Communauté de Madrid	Community of Madrid	Comunidad de Madrid (Comunidad Autónoma de Madrid)	Espainia
<b>Magnesia</b>	Magnesia	Magnésie	Magnesia	Μαγνησία [Magnisia]	Grezia
<b>Maramureş<sup>15</sup></b>	Maramureş	Marmatie	Maramureş	Maramureş	Errumania
<b>Mari El (Mari El Errepublikak / Marien Errepublikak)</b>	Mari El	République des Maris	Mari El	Республика Марий Эл (errusiera) / Марий Эл Республика (mariera)	Errusia
<b>Markak (-ak)</b>	Las Marcas	Marches	The Marches	Marche	Italia
<b>Masuria / Mazuria</b>	Masuria / Mazuria	Mazurie	Masuria	Mazury	Polonia
<b>Mazedonia</b>	Macedonia	Macédoine	Macedonia	Македонија	Bulgaria
